

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2020an Gasteizen alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresei laguntzeko aparteko dirulaguntzen udal programaren deialdi publikoa eta berariazko oinarri arautzaileak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2019ko abenduaren 23ko ALHAOn — 147. zk. — argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta udalaren webgunean kontsulta daitezke — www.vitoria-gasteiz.org —, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten enpresek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2020ko maiatzaren 29an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an Gasteizen alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresei laguntzeko aparteko dirulaguntzen udal programaren deialdi publikoa eta berariazko oinarri arautzaileak.

Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, herritarrek jakinaren gainean egon daitezkeen:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

Alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresentzako aparteko laguntzak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresei laguntzera zuzendutako laguntzak emateko —elkarren arteko lehia baliatuz— baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

3. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak

Merkataritza-jardueraren bat duten enpresa pribatuak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, haien izaera juridikoa edozein delarik, betekizun hauek betetzen badituzte:

- a. Helbide sozial eta fiskala Gasteizko udalerrian edukitzea.
- b. Diruz laguntzekoak diren jarduerak Gasteizko udalerriko lokal batean zuzenean garatzea.
- c. Enpresa Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea 2020ko martxoaren 14a baino lehenagotik, eta jarduera nagusia ez egotea jasota martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikuluan —gerora martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren artikulua bakarrak aldatua—.
- d. Mikroenpresa izateko bete beharreko betekizunak betetzea (hamar soldatapeko baino gutxiago, eta bi milioi eurotik beherako negozio-bolumena edo balantze orokorra, urtean).
- e. Aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresekin loturarik ez izatea, edo haiek partaidetza nagusia ez izatea enpresan.

f. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.

g. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere (elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar).

h. Ekonomia-jardueren gaineko zergaren 64, 65, 66, 67 edo 972 epigrafean sartuta ez dauden enpresek 2015eko urtarrilaren 1.az geroztik egon beharko dute alta emanda.

4. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak

2020ko martxoaren 15etik ekainaren 30era bitarteko aldiari —biak barne— dagozkion fakturak joko dira dirulaguntzaren xede izan daitezkeen gastutzat, kontzeptu hauei dagozkielarik:

— Hauetan izandako gastuak: norbera babesteko ekipamenduak eta prebentzio eta higiene sanitariorako nahiz instalazioak desinfektatzeko materiala eta jarduera gauzatzean segurtasuna bermatzeko bestelako babes-neurriak (manparak, metakrilatoak...).

— COVID-19ak eragindako aholkularitza- eta kontsultoria-gastuak.

— Eraldaketa digitalarekin lotutako inbertsioak: telelanerako ekipamendu eta software informatikoa, web korporatiboa eta sare sozialak marketin digitaleko estrategietara egokitu edo garatzea, e-merkataritzara eta abar.

Ez da kontzeptu horietarako dirulaguntzarik emango baldin eta enpresaren jarduera nagusia “digitalizatzeko laguntzak” izeneko udal laguntzen deialdian diruz lagun daitezkeen artean jasota badago.

— Alarma-egoeragatik jarduera eten zelarik, ekipoak eta makinak abiarazi eta martxan jartzeko beharrezko diren gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gutxienez 500,00 euroko inbertsioa izan beharko dute aurkezten diren proiektuek enpresaren jarduera nagusia txikizkako merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu pertsonalak badira —EJZko 64, 65, 66, 67 eta 972 epigrafeak—, eta 1.000,00 eurokoa gainerako sektoreetan.

Goiago adierazitako datetan behar bezala jaulkitako fakturen bitartez egiaztatu beharko dira egindako inbertsioak, eta gerora justifikatu beharko du horien ordainketa enpresak (ikus 15. oinarria).

5. oinarria. Dirulaguntzaren xede izango ez direnak

Oro har, honako hauek ez dira diruz lagunduko:

— Deialdi honen 4. oinarrian diruz lagundu daitezkeen gastuen artean berariaz sartuta ez dagoen edo diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten ez dion edozein kontzeptu.

— Telefono mugikorrek, telebistak eta soinu- eta irudi-irakurgailuak.

— Erakusteko eta probatzeko gauzak, eta gerora salgai jar daitezkeenak.

— Adierazitako jarduerari dagozkien zerga edota tasak, gainordainak eta administrazio-zi-gorrak.

6. oinarria. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzek 750.000,00 euroko aurrekontua izango dute, “Alarma-egoera deklaratzeko eragindako enpresentzako aparteko laguntzak” izeneko 0823.4331.489.00 partidaren barruan, bi ildotan banatuta:

1. Txikizkako merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzu pertsonalen sektoreei zuzendua —EJZko 64, 65, 66, 67 eta 972 epigrafeak—, 450.000,00 eurokoa.

2. Aurreko puntuan sartzen ez diren gainerako sektoreei zuzendua, 300.000,00 eurokoa.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio zuzkidura hori handitzerik izango da Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak kudeatzen duen partidaren batean soberako krediturik badago, interes publiko, ekonomiko eta sozialeko arrazoiak tarteko. Izan ere, dirulaguntza hauen aparteko izaera berorien arrazoi diren gertaeren zer-nolako berezi, bakar eta aurreikusezinei zor zaie.

7. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldeztatik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 15ean hasiko da, eta ekainaren 30ean bukatuko.

Enpresa bakoitzeko dossier bakarra tramitatuko da.

8. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, eta, hortaz, aurkezten diren proiektuen arteko alderaketa egingo da.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauek arautzen diren laguntzak kudeatzea. Hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratu da horretarako, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendariak, Enpresen Zerbitzuko buruak eta Merkataritza Zerbitzuko buruak osatua.

Batzordeak proposamena egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio eman edo ukatuko zaizkie laguntzak alarma-egoerak eragindako enpresei, horretarako ahalmena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Deialdian adierazitako betebeharrak bete arren —aurrekontu-partida agortzearen ondorioz— onuradun suertatu ez diren eskatzaileen zerrenda ordenatuak sartu ahal izango dira ebazpenean. Onuradun suertatu den enpresaren batek dirulaguntzari uko eginez gero, edo justifikazioaren ondorioz emandako dirulaguntzak itzuli beharrik gertatuz bero, dirulaguntzak eman dituen organoak erabaki ahal izango du lehendik dirulaguntza lortu ez duten enpresa eskatzaileei dirulaguntza ematea, zerrendan ageri den hurrenkera aintzat hartuta.

9. oinarria. Ebazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean ebazteko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen denean. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

10. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauek hartuko dira aintzat proiektuak balioesteko:

A. Jarduera nagusia txikizkako merkataritzaren, ostalaritzaren edo zerbitzu pertsonalen sektorekoa duten enpresak—EJZko 64, 65, 66, 67 eta 972 epigrafeak—.

EJZaren bi epigrafe edo gehiagotan alta emanda badago enpresa, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan adierazitako azalaren banaketa kontuan hartuz zehaztuko da jarduera nagusia, hau da, azalerarik handiena duen hura joko da jarduera nagusizat.

1. Enpresa eskatzailearen antzintasuna: gehienez 40 puntu, EJZko datuen arabera.

— 10 urtetik gorako antzintasuna: 20 puntu.

— 15 urtetik gorako antzintasuna: 30 puntu.

— 20 urtetik gorako antzintasuna: 40 puntu.

Oro har, enpresa eskatzaileak diruz lagun daitezkeen jarduera ekonomiko bera gauzatzen Gasteizko merkataritza-lokalen batean etenik gabe emandako denbora balioetsiko da antzintasun gisa.

2. Enpresaren jarduera nagusia: 40 puntu.

Jarduera nagusia epigrafe hauetakoren batekoa duten enpresak:

— 65: Janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu: 652.1: farmaziak: botika eta osasun eta higiene produktuen salerosketa, txikizka; 654.3: airetiko ibilgailuen salerosketa, txikizka; 654.4: ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: makinena; 654.6: mota guztietako ibilgailuetarako gurgil-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: erregai eta lubrifikatzaileen salerosketa, txikizka).

— 662.2: era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.

3. Egindako inbertsioak: gehienez 20 puntu.

— Egin diren inbertsio eta gastuak —diruz lagundu daitezkeenak— balioetsiko dira atal honetan.

Onartutako gastu edo inbertsioen 100,00 euroko puntu bat.

B. Gainerako sektoreak (EJZko edozein epigrafe, 64, 65, 66, 67 eta 972 izan ezik).

1. COVID-19aren eragina: gehienez 50 puntu.

COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko izandako eraginaren maila kontuan izango da atal honetan. Aurreko sei hilabeteekin alderatuta kalkulatu da diru-sarreraren murrizketa.

— Jardueraren itxierak eragindakoak: 50.

— Diru-sarreraren murrizketak eragindakoak; gutxienez diru-sarreraren ehuneko 75: 40.

— Diru-sarreraren murrizketak eragindakoak; gutxienez diru-sarreraren ehuneko 50: 30.

— Diru-sarreraren murrizketak eragindako gainerakoak: 20.

2. Enpresako langileak: gehienez 30 puntu.

Enpresaren tamaina balioetsiko da atal honetan, kontratatuen kopurua kontuan hartuta.

— 5 kontratatu edo gehiagoko enpresak: 30.

— 5 kontratatu baino gutxiagoko enpresak: 20.

— Soldatapeko langilerik gabeko enpresak: 10.

3. Egindako gastu eta inbertsioak —diruz lagundu daitezkeenak—: gehienez 20 puntu.

Egin diren inbertsioak eta gastuak —diruz lagundu daitezkeenak— balioetsiko dira atal honetan.

Onartutako gastu edo inbertsioen 100,00 euroko puntu bat.

11. oinarria. Proiektuak balioestea eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik. Hortaz, alderatu egingo dira aurkezten diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 10. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

Eskabide guztiak balioetsi ondoren, onartutako gastu eta inbertsioen ehuneko 50ekoa izango da dirulaguntzaren portzentajea, baldin badagokie.

Guztira lortutako puntuazioaren arabera ezartzen den hurrenkera horri jarraiki emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 10. oinarriko A.1 eta B.1 ataletan lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Berdinketak jarraituz gero, A.2 eta B.2 ataletan lortutako puntuazioa hartuko da aintzat. Hala ere berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideari Gasteizko Udalaren Erregistroan sarrera noiz eman zaion kontuan izanik.

Baldin eta erabilgarri dagoen saldoa ez bada aski kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua emango zaio horri.

Enpresa bakoitzeko gehienez ere 2.000,00 euroko dirulaguntza emango da.

12. oinarria. Ordaintzeko modua

Dena batera ordainduko da laguntza, deialdia ebatzi ondoren, eta 15. oinarrian adierazitako moduan justifikatu ondoren.

13. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

- Behar bezala justifikatzea dirulaguntza zertarako baliatu den, beharrezko den dokumentazioa aurkeztuz deialdian horretarako ezarritako epean. Justifikazio hori behar bezala aurkezten ez bada, itzuli egin beharko da jasotako dirulaguntza, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan adierazten den moduan.

- Udal dirulaguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik eskatu edota jasoz gero, udalari jakinaraztea.

- Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, udalari jakinaraztea.

- Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

14. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira bestelako laguntzekin, baldin eta diruz lagundutako kontzeptuaren kostua gainditzen ez bada. Muga horretara iritsiz gero, programa honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

15. oinarria. Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie oinarri hauen bidez araututako dirulaguntza-eskabideei:

– Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena (I. eranskina).

– Pertsona fisikoen kasuan: nortasun-agiriaren fotokopia.

– Pertsona juridikoen kasuan:

IFZren kopia.

Enpresa eratzeko eskrituren kopia.

Ordezkatze-ahalmenen kopia.

Ordezkatze-ahalmena duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.

- Soldatapeko langilerik izanez gero, langileen zerrrenda izenduna, 2020ko otsailekoa.
- Enpresak soldatapeko langilerik ez badu, 2020ko otsaileko autonomoen ordainketaren ordainagiria.
- Fakturen kopia.
- Aurkeztutako fakturen ordainketaren banku-egiaztagiriak. (Justifikazio bakarrean bildu behar dira laguntzaren xede diren gastu edo inbertsio guztiak. Eskabidea egitean aurkeztu ahal izango da, gainerako dokumentazioarekin batera, edo gerora, 2020ko abuztuaren 31ra arte.).

Jarduera burutu eta justifikatzeko epea bukatzen delarik egindako gastuen zati bat baino ordaindu ez bada, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, kobratzeko eskubidea galtzeari dagokionez.

Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez, ofizioz begiratuko da enpresa eskatzailea egunean dagoen, baita Ekonomia Jarduerean gaineko Zergan zein egoeratan dagoen ere.

Eskabidea aurkezteak Gasteizko Udalarik zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko baimena ematea dakar berekin (I. eranskina). Hala ere, enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak ordainduak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar du.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitua Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiak egon behar du egunean Gizarte Segurantzaren.

Ez da onartuko enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola argi eta garbi gera dadin nahikoa daturik jasotzen ez duen banku-egiaztagiririk.

16. oinarria. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntza-eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eranstean, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko —Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua—, eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitzat joko dela.

17. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Deialdi hau dela-eta egiten diren jarduketak gauzatzean, une oro beteko da datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoa.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 1ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI

I. eranskina: Laguntza-eskabidearen eta zinpeko aitortpenaren inprimakia

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu88/71/88871.pdf>